

LASARTE-ORIAKO UDAL MUSIKA ESKOLAKO GURASO ETA IKASLE TALDE BATEK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Guraso eta ikasle hauek,

AZALTZEN DUTE:

Herri honen dimentsioen ezaugarriei dagokien oso azpitik dagoela musikarekiko sorkuntza, jarduera eta kultura. Adierazpen honetarako, pareko diren herrien datu objetibo eta alderagarrietan oinarritzen gara.

Gure historiari erreparatuz gero 1875. urterarte iritsi daiteke gure begirada, Orian dagoen muralean azaltzen den moduan, 22 kidez osatutako Musika banda baten lekukotasunaren jabe egin gaitezke. Urte batzuk aurrerago, berriz, 70. eta 80. hamarkadetan ekimen pribatuen jarduera dakargu: Chicarrón Txaranga, Erketz Txaranga, La Rondalla Lasarte edo Aurelio Castro Elkartea, Rodríguez Orkestra, Alboka koroa, Zero Sette akordeoi taldea, txistulari eta dultzaina bandak eta Landaberriko trikitalarien taldeek girotzen zuten herria. Aipatuak izan ez diren Rock eta Pop taldeak gutxietsi gabe, noski. Garai hartan, falta zen guztiaren ardura Hernani eta Urnietako udalei egozten zitzairen: ez zituztelako baliabide egokiak erabiltzen, ez Lasarte-Oria-ren aurrerapena sustatzen, eta are gutxiago, herriearen kultura musikala auspotzeko zegokion ahalegina egiten.

Gaur egun Gipuzkoan hogeita hamaika udal musika banda daudela badakigu. Hogei herri haundien artean, Lasarte-Oria da musika bandarik ez duen udalerririk bakarria, biztanle kopuruan bederatzigarren handiena izan arren. Biztanlez antzeko diren Tolosa, Hernani, Bergara edo Pasaiarekin alderatuz gero jarduera eta sorkuntza musikaririk dagokionez, oso urruti gaudela deritzogu. Herri hauetan udal musika banda asko Udal musika eskolakoak dira: txistulari taldeak, dultzaineroak, saxofonistak, orfeoak, abesbatzak, fanfarreak, txarangak... Ezagunak guzti hauek plazaz plazako emanaldi eta kultur ekitaldi ezberdinetan.

Lasarte-Orian aldiz, orain dela hogeita hamar urte bezalatsu edo okerrago jarraitzen dugu, Udaletxe propioa izatearekin eta Udal Musika eskolaren sorrerarekin egoera aldatuko zela pentsatzen bagenuen ere. Udal Musika eskolaren funtzioaren gaineko ebaluazio eta autokritika egiteko garaia iritsi da. Gure ustez, egoera ez da aldatuko egiten duen eskeintza aldatzen ez bada. Gainontzeko udalekin alderatuz gero Bergaran 28 instrumentu eskeintzen direla badakigu, Pasaian beste hainbeste, Hernanin 16, Arrasaten 21, Billabonan 17, Beasainen 15.... Lasarte-Orian, berriz, 8 bakarrik. Perkusioa, saxofoia, bonbardinoa eta klarineta aipatu herri horietan guztietan eskeintzen da Lasarte-Orian izan ezik. Instrumentu hauek guztiak oinarritzeko izanik edozein musika talde eratu eta gure seme-alabek eskuratutako jakintza garatu ahal izateko garaian. Izan ere, ohartuta gaude 15-16 urteren bueltan instrumentuak baztertzen dituztela era horretako pizgarriak: talde, txaranga, bandarik ez dagoelako.

Horregatik guztiagatik

Lasarte-Oriako udaletxearen batzarrari honako neurriak onartu eta hartu ditzan ESKATZEN DUTE:

1. Piskanaka Udal Musika Eskolan irakasten diren musika tresnen eskaintza zabaltzea.
2. Beharrezko balitz aretoen erabilpena eskuragarri jartzea eskaintza berri hauetarako.
3. Epe ertain edo epe luze bati begira: eskola beraren handitze edo eraikin berri baten gauzatzea aurrez aipatutako helburuak bete daitezen.
4. Gaur egungo Udal Musika Eskolaren kudeaketan dinamika berriak sustatu eta bultzatzea, partaidetza handiagoa, arinagoa, balioanizduna, malgua eta sortzaileagoa izan dezan. Horien artean guraso eta ikasleen partaidetza bermatuko duen batzordeen sorrera.
5. Irakasleen kontratazioa arintzea, klaseak hasi bezpereri itxaron gabe. Hala nola, irakasleei zaintza orduak jartzea lanaldi bajak bete ahal izateko. Baita lehen unetik irakasle ordezkoren bila hasia bajak dauden garaian.